



HONDARRIBIKO UDALA

## INAUTERIETAKO KARTEL LEHIAKETA - 2019

Hondarribiko Udaleko Kultura Sailak 2019ko Inauterietako kartel lehiaketa antolatu du, ondoko baldintzen arabera:

1.- Lehiaketa honetan edozein pertsonak parte hartu ahal izango du.

2.- Erabiliko duten teknika librea izango da: margoa, marrazkia, kollage, etab., lanek derrigorrez jatorrizkoak izan beharko dute.

3.- Kartelen neurria 70 x 50 zmtakoa eta bertikala izango da.

Neurri hauek betetzen ez dituzten lanak ez dira lehiaketarako onartuak izango.

Egileak ez die beren lanei markorik jarriko, horretaz antolatzaileak arduratuko baitira.

4.- Karteletan derrigorrez ondoko lema azalduko da:

### "HONDARRIBIA - INAUTERIAK 2019"

5.- Sailkatutako lehen kartelari 450,00 €ko saria emango zaio, eta bera izango da 2019ko Inauteriak iragartzeko erabiliko dena.

**Sari honi P.F.G.Z. dagokiona kenduko zaio.**

6.- Lanak, BAZen (Kale Nagusia, 20 – behe) entregatuko dira 2019ko urtarrilaren 30ean eta 31n, eta otsailaren 1ean (09:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 18:00etara).

7.- Lanak egilearen sinadurarik gabe entregatuko dira, bakoitzaren atzealdean lema bat idatzita, horrekin batera kartazal itxi bat aurkeztuko da, kanpoaldean lanaren lema bera adieraziz.



## HONDARRIBIKO UDALA

Kartazalaren barrualdean egilearen izena eta bi abizenak, telefono zenbakia, N.A.N. zenbakia eta kontu korronteko jabea den agiria izango dira.

**8.-** Lanak jendaurrean jarriko dira 2019ko otsailaren 25eko arratsaldetik martxoaren 5a bitarte (biak barne), Arma Plazan.

**9.-** Irabazle gertatzen den kartelaren jabea Udala izango da, eta hori inprimatu, argitaratu eta zabaltzeko eskubidea izango du.

**10.-** Lanak jasotzeko egunak: 2019ko apirilaren 4an eta 5ean, BAZen (Kale Nagusia, 20 - behea), 10:00etatik 13:00etara.

Lanak esandako epearen barruan jasoko ez balira, antolatzaileek berorri uko egiten diotela ulertuko da.

**11.-** Epaimahaikoen ustez aurkeztutako lanek saria jasotzeko behar adineko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango ditu.

**12.-** Lehiaketan parte hartzearekin, baldintza hauek ontzat ematen dira.

Hondarribian, 2019ko urtarrilaren 11n  
**ALKATEA,**

**Izp.: Txomin Sagarzazu Ancisar**